



HASIERA ZER DA IRUNERO? NON LORTU PUBLIZTATEA KONTAKTUA ALDIZKARIEN ARTXIBOA IRUNERO HEDABIDEETAN

 Bilatu

Azken bidalketak

- Mintzalaguna: euskaraz hitz egin beldurrik gabe
- Kaleko inkesta: Zergatik ez euskara gehiago erabiltzen Irunen?
- Dena prest trenan Irunera iritsi zela 150. urteurrena ospatzeko
- Heldu den sagardoa
- Zer da Community Manager bat? Denek ulertzeko moduan azaldua

Atalak

- Aisia
- Gaztea
- Gurasoentzat
- Haurren Lanak
- Hezkuntza
- Informazioa
- Internet
- Iritzia
- Kirola

Iruzkin berriak

- admin(e)k San Markoseko opilaren arbasoak bidalketan
- Larraitz(e)k San Markoseko opilaren arbasoak bidalketan
- Josetxo Arrieta(e)k Kalean gaude! bidalketan
- 3yMedia Comunicación DigitalAlternativas gratis a

Heldu den sagardoa

2013(e)ko Urriak 15 Ana Grijalba Erantzun



Ola

Sagardotegiko nagusi Iñaki Bengoetxeak aurten 90.000 litro egitea espero du, bere lurretan dituen 2.000 sagarrondoetako fruituak baliatuz. Udazkenak epel jarraituz gero, sagardo ona aterako delakoan dago.

Eusko Labela lortu izanak saltzen lagundu dio; ez, ordea, liztor asiatiakoek, erlauntzak kaltetzen dituzten izurritea baitira.

- Sagar biltetan hasi zarete Olan. Zenbat litro sagardo egingo duzue aurten?

130.000 kilo sagar biltzea aurreikusita daukagu. Aurten 90.000 litro egitea espero dugu, aurreko urteetan baino pixka bat gehiago. Arrazoia da gure sagardoa ongi saldu dugula.

- Eusko Labela izateak lagundu du?

2011tik Eusko Labela dugu; hau da, %100ean zertifikatua da. Horrek bermatzen du, bestek beste, bertako sagarrez egiten dugula sagardoa. Zalantzarik gabe, produktua bul-tzatzen lagundu digu, eta espero dugu gehiagora joatea. Hori da bidea bertako produktuen kontsumoa sustatzeko.

- Nolako izango da datorren urtean edango den sagardoa?

Sagarrak ez du oraindik behar adina azukre, baina urrian zehar eguraldi onak jarraitzen badu, hau da, euri gutxi eta giro epela, dena konponduko da.

Udaberrian oso eguraldi txarra egin zuelako lehenengo lorea hondatu zen. Beterrin (Oria Beherea, Urumea, Oiartzun eta Bidasoa bailarak), ordea, azken loreak fruitua eman zuen. Dena atzeratuta dator, baina ematen du sagardo ona izango dugula.

- Iaz Gipuzkoako Sagardo Lehiaketako txapelduna izan zinen. Horren bultzada ere nabaritu duzue?

Bai, zalantzarik gabe horrek saltzen laguntzen du, bai kanpoan bai sagardotegian ere; jendearengan jakinmina sortzen du eta dastatzera etortzen dira asko eta asko.

Lau aldiz sartua nintzen finalean eta iaz sari nagusia irabazi nuen. Epaimahaiak usain freskoa eta kolorea nabarmendu zituen.



- Erlauntzak ere badituzue Olan. Zer moduzkoa da aurtengo eztea?

Hezetasuna sartu da ezian eta horrek kaltetu du.

- Liztor asiatiakoak kalte egin dizue?

Bai. Tranpak jarri ditugu, baina horiek ez da nahikoa. Bestelako neurriak hartzen ez badira, hemengo erleak gutxituko dira. Horrek esan nahi du ez

- OPENED: 11/11/2019

7. ANALYSIS OF THE DATA

Copyright © Irunero

Sagarretik sagardora